



Arartekoaren 2023R-2170-2020 Ebazpena, 2023ko apirilaren 13koa. Honen bidez, Leioako Udalarari gomendatu zaio ondoriorik gabe utz dezala trafikoko araudia urratzeagatik jarritako zehapen bat.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa egin zuen Arartekoan Udalak udaltzain batek bere kontra egin zuen salaketa bat zela-eta jarri zion isun baten harira. Salaketa hori honako arrazoi honengatik egin zen: *“abandonar el lugar del accidente sin facilitar datos a la parte afectada”*.

Kexa-idazkian honako hau adierazi zen: *“Esto es totalmente falso, pues no solo contacté en ese momento con la parte afectada, sino que ese mismo día estaba todo solucionado con mi aseguradora y la contraria...”*.

Zehapen-espedientean aurkeztu zuen berraztertze errekurtsuan honako hau adierazi zuen: *“contacté inmediatamente con la dueña del vehículo que era empleada de la panadería (...) a la que se dirigía e intercambiamos los datos de ambos seguros. A primera hora de la tarde me llamó el agente de su seguro al que facilité todos los datos e hice el parte correspondiente con mi aseguradora”*: Asimismo, indica: *“No se notifica la denuncia en el acto, siendo que la autora se encontraba intercambiando datos con la propietaria del vehículo contrario”*.

2. Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak Leioako Udalera jo zuen, planteaturiko kontuen berri eta horien inguruan egiten zuen balorazioaren berri eman ziezaion.
3. Udalak erakunde honetara bidalitako jarduketa-txostenean — agente salatzaileak eta Udaltzaingoaren ofizial-buruak sinatua— adierazten denez, Udaltzaingoak Ertzaintzaren ohartarazpen bat jaso zuen. Bertan jakinarazi zitzaion bi ibilgailuk talka egin zutela kalean (...) okindegiaren parean (...) eta alderdi eragileak lekutik alde egin zuela.

Gaineratu du bertatik igarotzen ziren bi pertsonak esku hartu zuten agenteei jakinarazi zutela istripua eragin zuen ibilgailuak gertakarien lekutik alde egin zuela eta Ertzaintzak, era berean, jakinarazi ziela agenteei kalteak eragin zituen alderdiak bere datuak eman zituela.





Horrez gain, txostenean honako hau adierazten da:

“El agente (...) se pone en contacto telefónicamente con la Ertzaintza, con el motivo de recabar información detallada del aviso, quienes informan que la causante de los daños se ha puesto en contacto y ha facilitado su filiación y su teléfono con el fin de esclarecer lo sucedido. Al parecer, ha abandonado el lugar del accidente debido a que ha sido increpada por dos personas a consecuencia de los daños que ha causado y no se ha podido quedar.

Los agentes de la policía local de Leioa se ponen en contacto con Doña (...), conductora de vehículo Toyota AURIS con matrícula (...), a quien se le informa de los trámites a seguir con su aseguradora. Al mismo tiempo, se la informa que la parte afectada se trata de una empleada de la panadería, por lo que se la pide permiso para que se le faciliten sus datos, dando su consentimiento” (sic).

Interesdunak (zeinari administrazioak emandako azalpenen berri eman baitzitzaion), azpimarratu zuen bere ibilgailuak beste ibilgailua ukitu besterik ez zuela egin aparkatzean, eta bere datuak beste ibilgailuaren titularrari eman zizkiola errepikatu zuen.

4. Arartekoak Udalaren erantzuna aztertu zuen, eta toki-erakunde horri helarazi zizkion zehapen-espeditetan atzemandako gabeziak eta haien balorazioa, eta epea eman zion bidalitako idazkian adierazitako arrazoiengatik zehapena indarrrik gabe uzteko prest zegoela adieraz zezan.
5. Udalak erantzuna eman zion Arartekoak planteaturiko kontuetako batzuei. Hala, txosten zehatzago bat bidali zuen eta bertan honako hau jakinarazi zuen:

“El día 16 de enero de 2020 sobre las 12,45 horas, la Policía Local de Leioa recibe un aviso al centro de mando y control por parte de la Ertzaintza de Erandio, indicando que se había producido una colisión entre dos vehículos en la calle Artaza a la altura de la panadería (...) y la parte causante había abandonado el lugar.

Personados en el lugar, los agentes de la policía local de Leioa, xxxx y xxxx hablan con dos testigos que a su vez son clientes del local hostelero, manifestando estos que una mujer conductora del vehículo Toyota Auris xxxx, ha golpeado a un Opel Corsa realizando la maniobra de marcha atrás, le han visto que ha visto el daño causado, pero no ha hecho mención de dejar nota al vehículo, por este motivo, le han recriminado su actitud. Ante este hecho, la conductora se ha montado en el vehículo y ha abandonado el lugar del accidente.





Los agentes allí desplazados, realizan llamada a la Ertzaintza para averiguar más datos y desde allí les comunican que ha llamado una mujer para indicar que quiere dejar constancia de sus datos, sin embargo, nada dice sobre los datos del vehículo dañado. Por suerte, en este caso concreto el vehículo dañado aún permanecía en el lugar y los agentes pueden comprobar in situ el daño causado.

Los agentes se ven obligados a realizar gestiones para averiguar datos de la titular del vehículo dañado, así como de la causante, contactando telefónicamente con la conductora de este último, tras hablar con la Ertzaintza, la cual manifiesta que se faciliten datos a la titular del vehículo dañado puesto que desconoce modelo ni matrícula. Se le informa de los tramites a seguir con su aseguradora. Al mismo tiempo, se le informa de que la parte afectada se trata de una empleada de la panadería, por lo que se le pide permiso para que se le faciliten sus datos, dando su consentimiento".
(sic)

Txostenak dioenez, terrazan eserita zeuden bi lekukok oharra jarri behar zuela adierazi zioten, eta, horren aurrean, emakumeak istripuaren lekutik alde egin zuen.

Jarraian, honako hau jakinarazi zioten erakunde honi:

"La mujer alejada del lugar parece que recapacita y siendo consciente de que le han visto su placa de matrícula, comunica seguidamente a la Ertzaintza sus datos, pero de forma incompleta, al no ofrecer datos del vehículo dañado, generando de este modo una situación en la que, si no estuviesen los testigos, los agentes no hubiesen podido averiguar el vehículo dañado por el accidente. La rápida actuación de los agentes de la Policía Local de Leioa y la circunstancia, de que aún seguían sentados los dos testigos, así como el vehículo dañado, ayudaron a hacer las gestiones oportunas para esclarecer lo sucedido y poner en contacto a ambas titulares instando a que informen a sus compañías aseguradoras respectivas.

Entendiendo que la conductora no actúa de forma correcta, puesto que realiza una colaboración parcial y condicionada por haber sido observada su mala maniobra, daños causados y matrícula, y abandona el lugar del accidente sin facilitar sus datos, lo cual realizó a posteriori y sin facilitar la información necesaria para ubicar el lugar del accidente y el vehículo afectado, el agente actuante procede a denunciar".





Hortaz, beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Administrazioaren zehatzeko ahalmena legeko tipifikazio-printzipioaren arabera arautzen da, Espainiako Konstituzioaren 25.1 artikuluan zera ezartzen baita: *“Ezin dakioke inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezar, baldin eta, une horretan delitu, falta edo arau-hauste administratiboak ez badira, aldi horretan indarrean dagoen legeriaren arabera”*.

Legezketasun- eta tipikotasun-printzipioak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 25. eta 27.1 artikuluetan ere jasotzen dira. Lehenengoak legez kontrako jokabideak eta horien zehapenak tipifikatzen dituzten arauen interpretazio murriztailea ezartzen du, eta bigarrenak, berriz, ezartzen du bat etorri behar direla guztiz arau-haustearen arau-deskribapena eta zehapenaren xede diren egintzak, horiek arau-haustean sartzeko zalantzarik egon ez dadin.

Era berean, Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluko eskubide eta bermeak erabat aplikatu direla deklaratu da; bereziki, errugabetasun-presuntziorako eskubidea: *“comporta que la sanción esté basada en actos o medios probatorios de cargo o incriminadores de la conducta reprochada, que la carga de la prueba corresponde a quien acusa, sin que nadie esté obligado a probar su propia inocencia, y que cualquier insuficiencia en el resultado de las pruebas practicadas, libremente valorado por el órgano sancionador, debe traducirse en un pronunciamiento absolutorio”* (Konstituzio Auzitegiaren 169/1998 Epaia, uztailaren 21ekoa, 2. oinarri juridikoa).

2. Gogoeta horiek egin ostean, Arartekoak beharrezkotzat jotzen du aztertzea ea zehaturiko jokabidean arau-haustean subsumitzeko ezartzen diren legeko baldintzak ematen diren (tipikotasun-printzipioa).

Aurrekarietan adierazi den bezala, salaketa idatzi da, arrazoi honengatik: *“abandonar el lugar del accidente sin facilitar datos a la parte afectada”*; eta interesdunak aurkezturiko dokumentazioaren arabera zehatu da, ez duelako bete Zirkulazio Araudiaren 129.2 g) artikuluan ezarritako betebeharra.

Zirkulazio Araudiaren 129. artikuluan, *“Laguntza-betebeharra”* deiturikoan, bi kasu jasotzen dira:



“1. Bide-istripuren batean inplikaturako bide-erabiltzaileak, istripua ikusi dutenak edo haren berri dutenak behartuta daude biktimei laguntza ematera edo haientzako laguntza eskatzera, baldin eta biktimarik badago. Era berean, laguntza eman behar dute kalte edo arrisku gehiago ez sortzeko, ahal den heinean zirkulazioaren segurtasuna berrezartzeko eta egitateak argitzeko (testu artikulatuaren 51.1 artikulua).

2. Zirkulazio-istripuetan inplikaturako bide-erabiltzaileek, ahal den neurrian, honako hauek egin beharko dituzte:

(...)

f) Istripuan inplikaturako beste pertsonen berri eman behar diete, hala eskatzen badiete; kalte materialak bakarrik eragin badira eta alderdietako bat bertan ez badago, neurri egokiak hartu behar dituzte ahalik eta lasterren hari izena eta helbidea emateko, zuzenean edo, zuzenean ezin bada, agintaritza-agenteen bitartez.

g) Istripuan inplikaturako beste pertsonen ibilgailuaren datuak eman behar dizkiete, hala eskatzen badiete.”

Horrela, Zirkulazio Araudiaren 129.2 g) artikulua urratutzat jotzen da, ahal den neurrian, zirkulazio-istripuan inplikaturako beste pertsonen ez zaizkienean ematen ibilgailuaren datuak, hala eskatu badute ere.

Gainera, Zirkulazio Araudiaren 129.2 artikulua f) idatz-zatia urratuko litzateke bi kasu hauetan: (i) Trafiko-istripuan inplikaturako pertsonen berri eman behar ez jakinaraztea, hala eskatu badute ere; (ii) Kalte materialak dituen trafiko-istripu batean inplikaturako egotea, eta ez ematea lehenbailehen izena eta helbidea bertan ez dauden kaltetuei, ez zuzenean, ez agintaritza-agenteen bidez.

(Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (aurrerantzean, Trafiko Legea) 51. Artikuluan, bestalde, istripu edo matxura baten kasuan dauden betebeharrak ezartzen ditu:

“1. Trafiko-istripuren batean tarteko den bide-erabiltzailea, istripua ikusi duena edo haren berri duena behartuta dago egon litezkeen biktimei laguntza ematera edo haientzako laguntza eskatzera. Era berean, kalte edo arrisku gehiago sor ez dadin lagundu beharko du, bai eta, ahal den heinean, zirkulazioaren segurtasuna berreskura dadin eta egitateak argi daitezen lagundu ere.

2. Istripu edo matxuraren bat gertatu delako, ibilgailu batek edo ibilgailuaren zamak galtzada oztopatzen badu, gidariak behar bezala seinaleztatu behar du ibilgailua edo sortutako oztopoa, eta bidetik lehenbailehen kentzeko



beharrezko diren neurriak hartu beharko ditu, oztopoa galtzadatik ateraz eta, ahal dela, aparkatzeko arauen arabera kokatuz.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko da istripua edo matxura gertatu den tokira bertaratzen diren errepideko laguntza-zerbitzuek zein baldintzetan egingo duten lan, eta zein ezaugarri izan beharko dituzten zerbitzuok eskaintzen dituzten enpresek edo erabili beharreko ibilgailuek eta gainerako baliabideek."

Hala, "Ez betetzea bide publikoetan laguntzeko arauak" arau-hauste oso astuna da, Trafiko Legearen 77. v) artikuluan ezartzen denaren arabera. Eta "Zirkulazio-istripu batean tarteko izanik, istripua jasan dutenek eskatuz gero, norberaren identitatea edo ibilgailuaren datuak ez ematea zirkulazioaren zaintzaz arduratzen den agintaritza-agenteari". arau-hauste astuntzat jotzen da —Trafiko Legearen 76. q) artikulua—.

Auzitegi Gorenak, 2000ko urriaren 4ko Epaian, honako hau gogorarazi zuen: "*La tipicidad de una conducta infractora supone la coincidencia de ésta con el supuesto de hecho de la norma tipificante, siendo condición esencial determinante tal adecuación de tal suerte que una conducta desplegada por muy reprobable que esta sea en el orden social, moral y ético no adquiere significado infractor hasta que la misma queda recogida normativamente como conducta sancionable*".

Kexagileak baieztatu du harremanetan jarri zela berehala ibilgailuaren jabearekin (joan behar zen okindegiko langilea zen) eta bi aseguruen datuak trukatu zituztela; agenteak eta txostenek, berriz, adierazten dute lekutik alde egin zuela eta Ertzaintzari talkaren berri eman ziola, eta bere datuak eta istripuaren lekua eman zituela.

Edonola ere, aurreko jarduketek ezagutzera ematen duten deskribapen faktikoak agerian jartzen du ez dagoela beharrezko korrelazioa arau-haustearen eta egotzitako ekintzaren artean, izan ere, urratutzat jotako arauan ezartzen da beharrezkoa dela istripu batean inplikaturiko beste pertsonen ibilgailuaren datuak ematea, hala eskatuz gero, eta hizpide dugun kasuan, kolpeagatik kalteturiko pertsonak ez zizkion datu horiek eskatu interesdunari, eta interesdunak ez zion uko egin datuak emateari.

Zirkulazio Araudiaren 129.2 artikuluan ez da ezartzen istripuaren lekuan geratzeko betebeharra, kalte materialak gertatzen direnean eta kalteturiko alderdia bertan ez dagoenean, kexagilearen kasuan gertatzen den bezala. Neurri egokiak hartzea baino ez du eskatzen, kalteturiko alderdiari lehenbailehen bere izena eta helbidea emateko, zuzenean edo, bestela, agintaritza-agenteen bidez..





Nolanahi ere, Zirkulazio Araudiaren 129.2 artikuluan jasotako betebeharra bete zen, bai kaltetuarekin zuzenean egin bazuen, interesdunak dioen bezala, zein Ertzaintzari telefonoz jakinarazi bazion, Udalak igorritako txostenen bertsioaren arabera, Udaltzaingoa edo ertzainak iritsi arte itxaron beharrik izan gabe.

Gaineratu beharra dago, kexagileak berak adierazi zuenez (eta administrazioak ez du zalantzan jarri), gertakarien egunean bertan arazoa konponduta geratu zen bi ibilgailuen aseguru-etxeen artean, eta horrek, era berean, bere defentsan egindako alegazioa berretsiko luke, bere datuak beste ibilgailuaren titularrari eman zizkiola adierazi baitzuen.

Erakunde honen ustez, salaturiko gertakariari buruz bi oinezkok eman zezaketen informazioa ere ez litzateke nahikoa izango kexagilea babesten zuen errugabetasun-presuntzioa indargabetzeko, kontuan izanik ez zituela onartu gertakariak eta bere bertsioa ziurtatzen zuten frogak zituela, administrazio horrek bere informazioan aipatzen dituenak.

Aipaturiko informazioaren arabera, salaketa jarri zuen agenteak ez zituen ikusi salaturiko gertakariak, eta, beraz, ezin izango litzateke gertakari horiei egiazkotasunaren legezko presuntzioa egotzi, eta, beraz, egitateak ezin dira presuntzio horretan oinarrituta frogatutzat jo (Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 88. art.).

Azken batean, Arartekoaren ustez, tipikotasun-printzipioa urratu da, espedientearen xede diren gertakariak ez baitaude egotzitako arau-hauste administratiboaren deskribapenean. Gainera, interesdunak bere ibilgailuaren datuak eman bazizkion beste ibilgailuaren titularrari, ez dirudi ez zuenik bete aipaturiko betebeharra, eta horrek, zehatzeko legezkoatasunaren printzipioa aplikatuz (Espainiako Konstituzioko 25. art.), era berean, ezarritako zehapenaren balioari ere eragingo lioke, eta baliorik gabe utzi beharko litzateke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Leioako Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Ondoriorik gabe utz dadila kexagileari ezarri zaion zehapena, gomendio honetan azaldutako arrazoiengatik.

